Hacia la reconciliación

Baketik ha creado esta sección en su videoteca, con fines exclusivamente educativos y no comerciales, que incluye películas y documentales que promuevan la reflexión sobre la paz y la convivencia en el caso vasco.

Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido para que puedan orientarnos en el camino hacia la reconciliación.

# HABLAN LOS OJOS

## Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: Parlen els ulls / Hablan los ojos.

AÑO: 2012.

DURACIÓN: 53 min.

DIRECCIÓN: Gorka Espiau.

REPARTO: Documental.

PRODUCCIÓN: TV3.

## Sinopsis

El documental relata por medio de seis testimonios desde diferentes puntos de vista lo que ha sucedido en el País Vasco durante las últimas décadas. Una historia contada a través del dialogo entre personas con diferentes vivencias: dos víctimas del terrorismo, un miembro de ETA con 18 años en prisión por delitos de sangre, la hija de un muerto por recibir malos tratos, una vocal del Consejo General del Poder Judicial y el ex director de Derechos Humanos del Gobierno Vasco. El documental, realizado un año después de que ETA anunciará el «cese definitivo de la actividad armada», recoge a través de la magia del diálogo la capacidad de las personas para aproximar posturas alejadas. En este trabajo se recogen casi todas las sensibilidades y la voluntad de establecer un encuentro entre ellas.

## Temática

Diálogo, Reconciliación, Futuro

Diálogo. Siempre que hablas con otra persona estás dispuesto a confrontar tus propias ideas y también escuchas a tu interlocutor, con lo que se genera un proceso de compartir, de debate y conversación. No hay sólo una verdad social sino la suma de verdades. Este reportaje es un exponente de diálogo entre diferentes.
Reconciliación. Reconciliarse es reconstruir el tejido social. Es reconocer que ha habido un alejamiento entre las personas que ha producido desgarros y vulneraciones de Derechos Humanos que han dejado heridas. Paso previo a la reconciliación es la convivencia.
Futuro. Debe producirse un equilibrio entre pasado, presente y futuro. Mirar sólo al pasado te ancla y no avanzas. Estar preso de las urgencias del presente también te impide avanzar. Y mirar sólo al futuro sin hacer los deberes es caminar con pies de barro. Para construir el futuro es necesario mirarlo sin prejuicios.

## Cuestionario de preguntas previas a la película

·Sobre el diálogo. ¿Conoces la realidad de la violencia en el País Vasco durante las últimas décadas? ¿Qué sentimiento te queda? ¿Has dialogado alguna vez en tu entorno (familia, amigos, escuela...) sobre si el uso de la violencia está justificado? ¿La has justificado tú alguna vez? ¿Qué haces cuando te encuentras con posturas contrarias a las tuyas?

·Sobre la reconciliación. ¿Conoces la situación de las víctimas de la violencia? ¿Has oído sus·reclamaciones y sus opiniones en los medios de comunicación? ¿Conoces la situación de los presos en las cárceles? ¿Sabes cuáles son sus principales reivindicaciones en la actualidad?

·Sobre el futuro. ¿Qué peso tiene que tener el pasado en ese futuro imaginado?

## Cuestionario de preguntas después de la película

El documental relata por medio de seis testimonios desde diferentes puntos de vista lo que ha sucedido en el País Vasco durante las últimas décadas. ¿Cuáles son las distintas posturas? ¿Qué las aleja y que las aproxima? ¿Qué ocurrió en este diálogo que permitió aproximar a personas con posturas alejadas? ¿Cómo se fueron aproximando?

¿Qué valor tiene el diálogo y qué aspectos positivos fomenta entre aquellos que lo practican? ¿Qué valores más importantes se podrían citar de las conversaciones que se reflejan en el documental?

¿Cuáles han sido los argumentos sostenidos en el tiempo para la justificación del uso de la violencia? ¿Tienen sentido esas razones para justificar el uso de las armas, incluso en un régimen dictatorial?

¿Qué sentido tiene hoy la petición de perdón? ¿Sería un gesto que aportaría valor al proceso y ayudaría a la mejora de la convivencia y de la reconciliación? ¿Se debe incluir este aspecto entre los pasos necesarios para la obtención de beneficios penitenciarios?

¿Son importantes los gestos en este proceso de construcción del futuro? ¿Se debe exigir a todas las personas, protagonistas de estos años de violencia, que se muestren favorables a esta dinámica de gestos?

¿Qué pasos legales y políticos se deberían dar para fomentar un proceso de reconciliación y convivencia justo y duradero?

Berradiskidetzea lantzen
Hacia la reconciliación






# HABLAN LOS OJOS

baketik | 943-251005
www.baketik.org

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA

## Berradiskidetzea lantzen

Baketik-ek euskal kasuan bakea eta berradiskidetzearen inguruko hausnarketa sustatzeko pelikulak eta dokumentalak barne hartzen dituen atal hau sortu du bere bideotekan, helburu soilik hezitzaile eta ez-komertzialekin.

Pelikula bakoitzak honakoa bezalako gida didaktiko labur bat dakar berekin. Bere helburua pelikulen edukien inguruko azterketa eta hausnarketa erraztea da, berradiskidetzerako bidean orientatzen laguntzeko.

# HABLAN LOS OJOS

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA:

Parlen els ulls/ Hablan los ojos.

URTEA: 2012.

IRAUPENA: 53 min.

ZUZENDARIA: Gorka Espiau.

AKTORE-ZERRENDA: Dokumentala.

EKOIZLEA: TV3.

## Laburpena

Dokumentalak Euskal Herrian azken hamarkadetan gertatutakoa azaltzen du, hainbat ikuspegitatik, sei lekukotzaz baliatuz. Bizipen desberdinak izan dituzten pertsonen arteko elkarrizketaren bidez kontatzen da historia hori: terrorismoaren bi biktima, odol delituengatik kartzelan 18 urte igaro dituen ETAko kide bat, tratu txarren ondorioz hil zen pertsona baten alaba, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokal bat, eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendari ohia. Dokumentala ETAk “bere jarduera armatua behin-betiko amaitzea” erabaki zuela iragarri eta urtebetera egin zen, eta elkarrizketaren magiaz baliatuz, pertsonek hasieran elkarrengandik urrun zeuden jarrerak hurbiltzen joateko duten gaitasuna erakusten du. Lan honetan ia sentsibilitate guztiak jasotzen dira eta elkarrengana hurbiltzeko borondatea azpimarratzen.

## Gaiak

Elkarrizketa, Adiskidetzea, Etorkizuna.

Elkarrizketa. Beste pertsona batekin hitz egiten duzun bakoitzean, zure ideiak bestearekin alderatzen dituzu eta solaskideari ere entzuten diozu. Horregatik, partekatze prozesu bat sortzen da, eztabaida eta elkarrizketa. Gizartean, ez dago egia bakarrik, egia askoren batura baizik. Erreportajea ezberdinen arteko elkarrizketaren adibide bat da.
Adiskidetzea. Adiskidetzea gizarte ehuna berreraikitzea da. Pertsonak elkarrengandik urrundu egin direla onartzea da, eta horrek zarrastadak eta Giza Eskubideen urraketak ekarri ditu; azken batean, zauriak eragin ditu.
Adiskidetzearen aurreko urratsa elkarbizitza da.
Etorkizuna. Oreka bilatu behar da iraganaren, orainaren eta etorkizunaren artean. Iraganari besterik begiratzen ez badiogu, gogortuta geldituko gara, aurrera egin ezinik. Orainaldiko presaren mende egoteak ere aurrera egitea eragozten dizu. Eta soilik etorkizunari begiratzea, etxeko lanak egin gabe, gainean zama izugarria eramatea da. Etorkizuna eraikitzeko ezinbestekoa da aurreiritzirik gabe begiratzea.

## Filma ikusi aurretik erantzuteko galderak

·Elkarrizketari buruz. Ezagutzen al duzu Euskal Herrian indarkeriari lotutako errealitatea, azken hamarkada hauetan? Zein sentimendu gelditzen zaizu? Inoiz zure inguruan (familia, lagunak, ikastetxea...) eztabaidatu al duzu indarkeriaren erabilera justifikatutadagoen ala ez? Zuk inoiz justifikatu izan al duzu? Zer egiten duzu zurearen zurkako iritziak topatzen dituzuean?

·Berradiskidetzeari buruz. Ezagutzen al duzu indarkeriaren biktimen egoera? Entzun al dituzu beren eskakizunak eta iritziak hedabideetan? Ezagutzen al duzu presoek kartzeletan bizi duten egoera? Ba al dakizu zer eskatzen ari diren gaur?

·Etorkizunari buruz.. Ze pisu izan behar du iraganak imajinatzen duzun etorkizun horretan?

## Filma ikusi ondoren erantzuteko galderak

Dokumentalak Euskal Herrian azken hamarkadetan gertatutakoa azaltzen du, hainbat ikuspegitatik, sei lekukotzaz baliatuz. Zein dira ikuspegi edo jarrera horiek? Zerk urruntzen ditu eta zerk hurbiltzen ditu? Zer gertatu zen elkarrizketa edo solasaldi horretan, urrundutako jarrerak zituzten pertsonak elkarrengana hurbiltzeko? Nola joan ziren elkarrengana hurbiltzen?

Zein ekarpen egiten du elkarrizketak eta zein alderdi positibo sustatzen ditu solaskideen artean? Zein balio garrantzitsu atera daitezke dokumentalean jasotzen diren elkarrizketa horietatik?

Zein argudio erabili izan dira urteetan indarkeriaren erabilera justifikatzeko? Arrazoi horiek baliagarriak dira armen erabilera justifikatzeko, baita diktadura batean ere?

Zein zentzu du gaur barkamena eskatzeak? Keinu hori baliagarria izango al litzateke prozesuak aurrera egiteko? Lagunduko al luke elkarbizitza hobetzen eta adiskidetzea lortzen? Barkamena eskatzen den ala ez kontuan hartu behar al da espetxe onurak lortzeko beharrezko diren urratsetan?

Etorkizuna eraikitzeko prozesu honetan, keinuak garrantzitsuak al dira? Indarkeria urte hauetako protagonista guztiei eskatu behar al zaie keinuen dinamika horren alde agertzeko?

Lege eta politika ikuspegitik, zein urrats egin beharko lirateke adiskidetze eta elkarbizitza prozesu bidezkoa eta iraunkorra sustatzeko?

## Berradiskidetzea lantzen

Hacia la reconciliación






# HABLAN LOS OJOS

baketik

943-251005
www.baketik.org

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA